

Oporren iluna gozagarri

Alex Gurrutxaga

Iaz argitaratutako literatura lan aipagarrien artean dago Harkaitz Canoren azken liburua, *Beti oporretan*.

Hamalau ipuinek osatua dago, eta ipuin-liburuaren eta bildumaren artean dabil: guztietan dago opor edo bidaia giroa, baina askotarikoak dira gaiak eta kontamoldeak, gertaerak eta tonuak.

Oro har, ironiaz erailitako errealismoa da Canorena –eta ironia esatean ez gara umoreaz ari, behako zorrotzaz baizik–: topikoak deseraikitzen ditu errealtate bistakoena koxka bat estutuz, eta oporrek iradokitzen duten mundu idiliko eta argiz betearen ifrentzu gatazkatsua azaleratzen du, harreman eta egoera ilunak sortuz. Adibidez, haurtzaro maiz idealizatuko eta nerabezaroko harreman biolentoak kontatzen dituzte lehen bi ipuinek (*Arrokarik altuena* eta *Igerilekua*).

Aipaturiko iluntasuna da bil-

duma honetan atentzioa ematen duen elementu bat: badago zerbait misteriotsua, azpitik doana eta makabroa ere izan daiteke-



'Beti oporretan'

Idazlea: Harkaitz Cano.
Argitaletxea: Susa.

Bihotza eta zirrara

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Tarteka argitaratzen dira literatura obrak, esku artean dugun hau bezala, asmo literario soila darienak. Gutxi ematen du, *soil* izenlaguna neuk ere jarri baitiot, baina, gutxi ez, asko iruditzen zait literatura bere hutsen eskaintzen dituzten obrak aurkitzea, joera utilitariora duten eskaintza nagusiaren artean.

Konturatuko zinen zeu ere, irakurle, zein zaila den halakorik aurkitzea. Albo-asmoen katalogo bat egin nahi izan gabe, mordoxka bat obra dira euren ezaggarri terapeutikoen pentzuan saltzen direnak, kontaezin ahala balore *onuragarri*ren katalogoa osatuz literaturaren aurkibideetan. Asmoz zintzo ari direla pen-

tsatu beharko dugu, behintzat. Eta zer esan literatura begirada komertzial hutsarekin sortzen duten beste horietaz, ez bada arima-gabeturiko kontakizunak ekoizten dituztela... Eta, hain zuzen, iruditzen zait aurrefabrikatuei falta ohi zaien ariman, eta



'Sagarraren misterioa'

Idazlea: Paddy Rekalde. **Ilustratzailea:** Belatz. **Argitaletxea:** Elkar.

na. *Erreka* ipuinak, adibidez, kutsu gotikoa dauka paisaiaren deskribapenean –zoragarri egina, bestalde–; *Etxeko giltzak* familia baten ihesaldiaren kontakizun irekia da; eta heriotza agertzen da, zeharka nahiz zuzenean, *Boeing 767* eta *Safari*a ipuinetan.

Errealismoa, puntu ilunkara, eta, jakina, ezin zuen falta literaturarekin jolasten duen ipuinik ere. Adibidez, Julio Cortazarren *La autopista del sur* ipuin ezagunaren berrirakurketa originala egiten du *Danubio mekanikoa*-k, protagonistatzat Angela Merkel hartuta; eta liburua ixten duen *Izar ozenak* ipuinean zera kontatzen zaigu: Mediterraneoeko uharte batera apartatu –desagertu– den idazlea elkarriketaz xede duen kazetariaren pasadizo exotikoa.

Aipatu aniztasunean, istorio indartsuak dira guztiz gehienak, eta halakoxeak dira euren garapenak ere. Idazleak doi-doi kontatzen du beharrezkoa –era Carverzalean, batzuetan minimoa da gertakaria–, eta informazioa ongi dosifikatuta ematen. Esan bezala, narratzaileen begirada ironikoa da, eta inoiz gordina ere bai. Oso narratzaile markatuak dira Canorenak: onerako zein txarrerako. Onerako, begirada oso interresgarrien jabe direlako, eta

haiengan daudelako egilearen begiratu, ironia kritikoa eta umorea; eta baita txarrerako ere, batzuetan idazlearen eta narratzaileen arteko distantzia desgertzen delako –digresioetan, bereziki–, eta zehar estilo libreko une batzuetan eman dezakeelako Harkaitz Cano bera dela hizketan edo pentsatzen ari dena, eta ez istorioko pertsonaia. Baina, edonola izanda ere, begiratu da idazlearen estiloaren marka bereizgarria.

Estilo soil eta batzuetan zaurgarria darabil Canok ipuinotan, baina aldi berean oso poetikoa. Deskribapenetan zehatza da, metafora eta konparazioetan aberatsa –baina inoiz kargatua izan gabe–, eta umore eta gogoezta printzak tartekatzen ditu. Azpimarratu beharrezkoa da elementu gutxi batzuei zer nolako zukua ateratzen dien; hain zuzen, Canoren estiloak berea du irudien kontrola –poeta aparta da tropoen erabileran–; gutxi bezala garatzen ditu irudi eta sinbolo txikiak, eta elementu horiek sinesgarritasuna eta kalitatea ematen diete ipuinei.

Azken finean, istorio indartsuak dira hauek, oso ondo garatuak, eta idazlearen estiloaren marka daukate. Aitzakiarik gabeko irakurketa oporretarako.



'Hutsarte'

Idazlea: Aritz Mutilo.
Argitaletxea: Maiatz.

Duela ia hiru urte *Gorren dantzalekua* lana kaleratu ondotik, tarte batez poesia ez idaztea, «hutsarte bat hartzea» erabaki zuen idazle eta kazetari zaurzarrak. Baina berriro heldu zion gorri poesiarri, eta *Hutsarte* izena jarri dio poema liburu berrirari. Denboraren etenean lotura dute, aldez edo moldez, piezek.



'Gabriel Celaya 1911-1991'

Apaillatzailea: Aritz Gorrotxategi.
Ilustratzailea: Arkaitz Barriola.
Argitaratzailea: Donostia Kultura.

Gabriel Celaya poeta hil zela 25 urte bete berri diren honetan, haren lanari buruzko liburu ilustratua argitaratu dute. Gorrotxategiren testuekin eta Barriolaren ilustrazioekin batera, Celayaren poema hautatuak, oinarriko kronologia eta bibliografia zerrenda bat jaso dituzte.



'Azken balada'

Idazlea: Mariasun Landa.
Argitaletxea: Erein.

Hiru bidetan adarkatzen den kontakizuna ondu du Landa gaztetxoentzako lanean. *Oreina bilakatu neska*, euskal ahozko literaturan jasotako azken balada hartu du oinarri, eta parke batean oreine so dagoen Maitane neskatoa jarri du protagonistaren rolean.

terapeutikoei falta ohi zaien plazeraren dagoela literaturaren balio nagusia: bihotza eta zirrara.

Beharrik, egon badaude terapeutikotzat jo daitezkeen obra dibertigarriak, salmenta arrakasta ere badutenak, baina, sinetsita nago langintzari neurria ohi baino hobeto hartuta dioten eskuetatik etortzen direla, eta terapeutikak literatur sormenaren albo-asmoak izan ohi dituztela. Gure artean P. Añorgaren, edota J.K. Igerabideren obrei erreparatzea besterik ez dago, adierazi nahi dudanaren adibide sorta pare bat jartzearen.

Eta, hain zuzen, horixe azpimarratzen hasiko naiz *Sagarraren misterioa* obrarekin: bihotza eta zirrara duen lana da, bere xumean.

Generoari erreparatuta, ikerketa abentura domestikoa da, egungo sorkuntzen artean boldera dagoen haur ikerlari baten pasadizoa kontatzen diguna, gehiegizko arriskurik hartu gabe, eta misterio bat argitzen arituko dena, etxeko inguruntetik urrundu behar izan gabe.

Balizko irakurlearen antzera, protagonista zortzi edo hamar

urteko haurra da, landa eremuan bizi den klase ertaineko familia urbanita baten partaidetza.

Hirugarren pertsona indatzen dago, alegia, idazleak aurkezten ez digun narratzaile ezezagun orojakile baten ahotik jasotzen dugu kontakizuna. Ondorioz, hauraren barne-hizketatik apur bat urrutiratu gaudu, eta distantzia horrek babestu egiten du protagonistaren intimitatea, eta babestu egiten du kontakizuna hain modan dagoen *psiko-literaturatik*.

Halere, nire iritzirako, misterioa argitzeko luze xamar jotzen du, eta erritmo arazoak sortzen dira, nahiz eta narrazioa laburra izan, ataletan banatuta egon, eta beste hainbat aringarri badituen, besteak beste, elkarriketa ugari eta pertsonaia kopuru txikia. Babiliteko formatu arazoa izate, ez dakit.

Haatik, arestian esan dudanez, obra honen ekarpen interresgarriena joera didaktiko eta industrialen aurrean egiten duen literatur sorkuntza *klasikoaren* aldarrikapena da, eta horri helarazten diot nik.